EKAINAK 28 | LGTBIQ+ PERTSONEN ALDEKO ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO EGUNA

GURE HARROTASUNAK BEREN GORROTOA GELDIARAZIKO DU

LKN CGT

www.cgt.org.es

EKAINAK 28
LGTBIQ+ PERTSONEN ESKUBIDEEN ALDEKO NAZIOARTEKO EGUNA

Ekainaren 28a, LGTBIQ+ pertsonen eskubideen aldeko nazioarteko eguna, kaleak musikaz, kolorez, aniztasunez, disidentziaz, bizitzaz beteko diren eguna da.

Zalantzarik gabe, "Harrotasunaren Eguna" deiturikoaren ospakizuna urteko mobilizazio sozial garrantzitsuenetako bat bihurtu da duela hamarkada batzuetatik hona. Hala ere, kapitalismoa hura desitxuratzen saiatzen da, askotan negozioa egiten gizartetik baztertzen duen horrekin ere.

Baina CGT-LKNtik argi daukagu ekainaren 28ak zer esan nahi duen bai guretzat, bai milaka pertsonarentzat. Jai-giroan, koloretsu, alai, solidario eta ausart, kalera atera behar dugu LGTBIQ+ pertsonen eskubideak harrotasunez aldarrikatzera, ia egunero ikusten ari baikara pertsona horiek diskriminatzen eta erasotzen dituztela beren sexu-izaeragatik, eta egiaztatzen dugu horrelako erasoak goraka doazela urtetik urtera.

Komunikabideek eskuin muturrak pertsona horienganako dituen gorroto-mezuen berri ematen dute, eta muturreko eskuina aurrera egiten ari da, neurri batean komunikabide horiek egunero jartzen dioten alfonbra gorriari esker. Hori dela eta, mobilizazio horiek inoiz baino beharrezkoagoak dira gaur egun, XXI. mendean.

CGT-LKNtik afiliazioa eta gizartea, oro har, Estatu osoan zehar antolatzen diren mobilizazioetan parte hartzera animatzen ditugu. Aniztasunaren estigmatizazioak langile guztiak zeharkatzen gaitu, gizateria osoa, eta irmo erantzun behar dugu. Nahi genuke aldarrikapen horiek aste honetan egingo diren ekitaldietan bakarrik ez geratzea, baizik eta egunero, gure auzoetan, gure hirietan, gure lantokietan... LGTBIQ+ pertsonen eskubideak harro aldarrikatzea.

GURE HARROTASUNAK
BEREN GORROTOA GELDIARAZIKO DU

www.cgt.org.es

CGT